

VENTISCA. 19 DE FEBRERO.

El 18 de febrero, después de un día muy frío en todo el norte de la Península y en particular en el País Vasco (el más frío del año), donde se alcanzaron los -16°C en Iturrieta, penetra un frente cálido asociado a una depresión atlántica desde el sur de la Península (ver figuras 5.1 a 5.3). Desde primeras horas de la mañana se produjeron precipitaciones de nieve en la meseta castellana. Estas precipitaciones se fueron extendiendo lentamente hacia el norte y alcanzan el País Vasco a últimas horas de la tarde donde, por otro lado, el día fue soleado con temperaturas ya suaves a mediodía.

Durante la madrugada del día 19 se producen precipitaciones de nieve en el País Vasco por encima de los 100 metros. Este hecho fue además acompañado de vientos del sureste, muy fuertes en algunos puntos, como en la Llanada Alavesa y puertos de montaña. Estos vientos provocaron ventiscas importantes que ocasionaron problemas de tráfico, produciéndose el cierre de varios tramos de carretera y puertos de montaña.

Las mayores rachas de viento no se produjeron en puntos de montaña, sino en los valles, por efectos orográficos locales. En particular los vientos de dirección sureste se canalizan en el valle de la Sakana, donde se encuentran próximas las estaciones de Salvatierra y Zegama (Otzaurre). En Arkaute, ya distante de este valle, los efectos fueron mínimos.

La ventisca registrada fue una combinación de factores meteorológicos de diversas escalas, además de las especiales características del tipo de nieve depositada sobre la zona afectada. Cuando la velocidad del viento supera los 90 km/h la nieve arrastrada puede proceder de zonas muy alejadas, en el caso que nos ocupa de la sierra de Urbasa.

Los problemas ocasionados no fueron por la propia precipitación en forma de nieve, escasa en general, sino por el viento que la barría y acumulaba. De hecho, en la tabla 5.1 destacan las velocidades del viento y no la cantidad de precipitación registrada, aunque hay que decir que muy probablemente la caída fue mayor, debido a la dificultad para registrar precipitación en esas condiciones.

HAIZETEA. OTSAILAREN 19AN.

Otsailaren 18an Penintsularen iparralde osoan eta bereziki Euskal Herrian hotz ikaragarria egin zuen (urteko hotzena Euskal Herrian), Iturrietan $-16\text{ }^{\circ}\text{C}$ neurtu zirelarik. Ondoren, Penintsularen hegoaldeetik, depresio atlantiar bati lotutako fronte bero bat sartu zen (ikus 5.1, 5.2 eta 5.3 irudiak). Goizaren hasieratik elurra egin zuen Gaztelako Lautadan. Prezipitazio hauek pixkanaka-pixkanaka iparralderantz hedatzen joan eta arratsaldearen azken orduetan Euskal Herrira heldu ziren bertan ordurarte izandako egun eguzkitsua eta tenperatura gozoak hondatuz.

Hilaren 19ko egunsentian 100 metrotik gora elurra egin zuen Euskal Herrian. Honekin batera, hego-ekialdeko haizea ere ibili zen, leku batzuetan oso gogor, hala nola Arabako Lautadan eta mendateetan. Haize gogorrak haizeteak eragin zituen eta errepede-zati asko eta mendate batzuk itxi egin behar izan zituzten

Haize-bolada gogorrenak ez ziren mendialdean izan, haranetan baizik, ezaugarri orografiko lokalen eraginez. Hego-ekialdeko norabideko haizeak bereziki Sakanan barrena bideratu ziren, Aguraineko eta Zegamako (Otzaurte) estazioetatik hurbil. Arkauten, aldiz, ibar horretatik urrun dagoenez, ez zen ia ondorioz igarri.

Erregistratutako haizetea zenbait eskalatako hainbat eragile meteorologikok bat egitearen ondorio izan zen, baina metatutako elur-motaren ezaugarri bereziek ere izan zuten zerikusirik. Haizeak 90 km/h-ko abiadura gainditzen duenean, elurra oso urrutitik ekar dezake, kasu honetan Urbasatik.

Sortutako arazoak ez ziren elurraren beraren ondorio izan, eskasa oro har, baizik eta berau ekortu eta metatu zuen haizearena. Izan ere, 5.1 taulan ikusten denez, aipagarriena haizea izan zen, eta ez metatutako prezipitazioa. Hala ere, esan beharra dago prezipitazioa, datuek adierazten dutena baino handiagoa izango zela, baina baldintza horietan prezipitazioa neurtzea benetan zaila da.

Tabla 5.1. Rachas máximas, velocidad media, temperatura mínima y precipitación de diversas estaciones el 19 de febrero.

5.1 taula. Otsailaren 19an hainbat estazioetan haize-bolada maximoaren abiadura, haizearen batez besteko abiadura, temperatura minimoa eta prezipitazioa.

Estación Estazioa	Racha máx (km/h) Haize-bolada max (km/h)	Vmed (km/h) B/B Abiadura km/h	T ^a mín (°C) T ^a min (°C)	Prec. (mm) Prezipitazioa
Salvatierra	94,7	40	-1,9	5,4
Iturrieta	78	40	-5,1	
Arkaute	61	25	0	0,7
Zegama	105,5	45	-1,9	1,1
Urkiola	83	45	-3,1	0,6




Figura 5.1. Presión a nivel del mar y frentes el 19/02/2003 a las 00 UTC.

5.1 irudia. Presioa itsas mailan eta fronteak 2003/02/19 UTC 00tan.




Figura 5.2. Geopotencial e isotermas a 850 hPa el 19/02/2003 a las 00 UTC.
5.2 irudia. Geopotenziala eta isotermak 850 hPa-era, 2003/02/19 UTC 00tan.




Figura 5.3. Geopotencial e isotermas a 500 hPa el 19/02/2003 a las 00 UTC.
5.3 irudia. Geopotenziala eta isotermak 500 hPa-era, 2003/02/19 UTC 00tan.